

## **SPRILUR, S.A.**

### **Sozietatearen izena**

Sprilur, S.A.

### **IFK**

A01024090

### **Izaera**

Sozietate Publikoa.

### **Kontabilitate-araubidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-araubidea**

Partida murriztaileak dituen balioespena.

### **Sorrera**

Sozietatea (lehenago "Industri Lurraren Sustapen eta Gestiorako Elkarte, A.B. - Promoción y Gestión de Suelo Industrial, S.A." zeritzon) 1983ko martxoaren 2an sortu zen honen babesean: [241/1982 DEKRETUA, abenduaren 20koa, "Landabaso, Hirigintzarako A.B.-Urbanizadora Landabaso, S.A." izeneko Akziokako Herri Baltzua Sorrarazteari buruzkoa](#). Geroago, 1995eko apirilaren 12an, sozietatearen izena aldatu egin zen, eta egungoa hartu zuen.

### **Sail-atxikipena**

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

### **JESN**

4110 Higiezinaren sustapena.

### **Sozietatearen helburua**

Sozietatearen xedea helburu hauetakoren bat edo batzuk gauzatzea izango da, betiere industria-erakinak eta lurzorua sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean:

- a) Azterketak egingo ditu, haietan edozein motatako hirigintza-plan eta -proiektuak jasoz. Bere zeregina izango da, halaber, plan eta proiektu horiek izapidetzeko eta onartzeko hirigintza-arloan indarrean dauden legeen arabera dagozkion zereginak gauzatzea.
- b) Industria-lurra prestatzeko egin behar diren hirigintza-jarduerak gauzatuko ditu; haien artean, azpiegitura- eta hiritze-lanak, zerbitzuen horniketa, eta hirigintza-planeamendua gauatzeko egin beharreko gainontzekoak.
- c) Industrien kokaleku izango diren eraikinak eta instalazioak egiteko beharrezkoak diren eraikuntza-jarduerak egingo ditu, bai eta hirigintza-planeamenduan aurreikusten den ekipamendu komunitarioa jartzeko behar direnak ere.
- d) Egiten dituen hirigintza- eta eraikuntza-jardueren ondoriozko obra eta zerbitzuen kudeaketa-, ustiaketa- eta mantentze-lana egingo du.
- e) Bere xedea betetzearren, baltzuek interes bereziko enpresen kapitalean parte hartu ahal izango du, kasuan kasurako zehazten diren baldintzetan.

## Sailkapena kontabilitate nazionalan


EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

### Kapital soziala

189.048.700 €

### Kapital sozialaren osaera

SPRI, S.A. % 92,27  
EAEko Administrazio Orokorra % 7,73



### Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzea dagokion organoa. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Juan Ignacio García de Motilola Ubis jauna      presidentea.  
Estibaliz Hernández Laviña andrea              presidenteordea.  
Alejandro López Cárcamo jauna  
Imanol Aburto Erdoiza jauna  
Manuel Urquijo Urrutia jauna  
M<sup>a</sup> Elena Lete García andrea  
José Antonio Galera Carrillo jauna

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 100

### 2012ko aurrekontuak

[www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

### 2012ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, 2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

### 2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	277.155.422 €
Ondare garbia	184.535.969 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	13.280.701 €
Batez besteko langile-kopurua	24

### Sozietatearen helbidea

Urkixo zumarkalea, 36-3. solairua (Bizkaiko Plaza eraikina) Bilbo 48011 Bizkaia.

### Webgunea

[www.sprilur.es](http://www.sprilur.es)